

%15eko deskontua, txotx garaian

Apirilaren 12ra arte, ostiraletan sagardotegian bazkaldu edo afaldu, eta landetxe, ostatu edo hotelean lo egiteagatik, %15 merkeago. %15eko deskontua bai otorduan, baita lotarako eginiko erreserban ere. Hauxe duzue, estreinatu berri dugun 2014ko txotx garai honetarako, eskualdeko 8 sagardotegik eta 17 ostatuk, Behemendi Landa Garapenerako Elkartearekin eta Udalekin batera, elkarlanean, Usurbil, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietara datozen bisitarientzako prestatu duten eskaintza erakargarria.

Turista mordoa erakartzen duen Gipuzkoako hiriburu ondoan kokatua egonik, Donostiarekiko gertutasun horrek, eta orain deskontu honekin, bezero gehiago erakar ditzaketelakoan daude. Bai urrutitik datozenak, edota baita Euskal Herriko beste hainbat txokoetatik sagardo berria dastatzera gerturatu asmo dutenak ere.

Bi lagunentzako otordua eta egonaldia

Ostirala heldu eta egitasmo honetara atxiki den sagardotegi eta ostatuetako batean apirilaren 12ra arte erreserba egiten duenari beraz, %15 merkeago aterako zaio otordua eta loa.



Pasa den astean iragarri zuten kanpaina. Usurbilgo bi sagardotegi eta bost aterpe animatu dira.

Promozioa aurkezteko antolatu zuten prentsaurrekoan, deskontu honen onuraduna izateko zer egin behar den azaldu zuten egitasmo berri honen eragileek. Lehenbizi ostatua aukeratu eta ostatu horrekin harremanetan jarri telefonoz, edo bestela email bat bidali. Eta noski, erreserba egin. Erreserba egiterakoan ze sagardotegira joateko asmoa duzun esan, eta sagardotegi horren inguruko informazioa eskaini. Eta kito. Ostatuan bertan, deskontu txartel bat jasoko du bezeroak. Promozioan, logela biokoitzean bi lagunentzako gaur bateko egonaldia eta sagardotegiko otordu bat sartzen dira, bakailao tortila, bakailao friji-

“Beherapena aplikatzeko, bi pertsonentzako erreserba egin beharko da, bai sagardotegian baita ostatuan ere”

tua piperrekin, txuleta, gazta, irasagarra, intxaurrek, ogia eta txotxeko sagardoa barne delarik.

Hori bai, beherapena aplikatzeko, bi pertsonentzako erreserba egin beharko da, bai sagardotegian baita ostatuan ere, eta produktu bakoitza bere aldetik ordaindu beharko da. Alegia, ostatuko egonaldi gastuak ostatuan bertan ordaindu beharko dira, eta sagardotegiak sagardotegian. Promozio

hau ostiraletarako egiten dute soilik, apirilaren 12ra arte.

Guztira, 8 sagardotegi eta 17 aterpe

Guztira 8 sagardotegik parte hartu dute promozio berri honetan. Tartean, Arratzain eta Aginaga sagardotegiek. Baita Hernaniko Akarregi, Iparragiri, Itxas-Buru, Astigarragako Iretza eta Petritegik eta Urnietako Oianumek.

%15eko beherapena eskaintzera animatu dira baita eskualdeko 17 ostatu ere. Horietatik bost, Usurbil, Aginaga eta Zubietakoak ditugu; Aginaga Hotela, Barazar Landetxea eta Arratzain, Illumbe-Goikoa eta Zabalea Nekazalturismoak.

Gure Pakeako bazkideen txapelketetan izen ematea, ixtear

Ostiral honetan, otsailaren 7an itxiko dute, datorren astetik aurrera ospatuko diren jokoetan izena emateko epea. Mahai joko eta mugimenduko txapelketak hain zuzen, otsailaren 11, 12, 18 eta 20rako antolatu dituzte.

Saio guztiak Artzabalen izango dira, arratsaldeko 16:00etatik aurrera aipaturiko egun horietan.

Otsailaren 20an, azken jokoa ospatu eta gero sariak banatuko dira. Eta

askaria dastatu ahal izango dute, ekimenotan parte hartu dutenak.

Jokoen egutegia

Honakoa da, Gure Pakea Elkarteko bazkideen arteko joko eta txapelketen egutegia:

■ Otsailak 11, asteartea: punttua.

■ Otsailak 12, asteazkena: tutea.

■ Otsailak 18, asteartea: musa.

■ Otsailak 20, osteguna: igel eta toka jokoak. Sari banaketa eta askaria.



Gure Pakea elkarteak eskerrak helarazi nahi dizkio Rural Kutxari, bere ordenagailua elkarteari emateagatik.